

▼ **ERRIRIK-ERRI**

Sagardogilleak lan eta lan

TXOMIN GARMENDIA

Urrian sartu giñan ezkerro, eta Sanmartiñak alderarte, Tolosa'tik Donosti'ra bide ortan beintzat; kamionak sagarrez kargatuta ikustea ez da arritzeko, usai ederra botatzen dutela. Jakin degunez, Galizi'tik datorren sagarra da aurtengoa, eta gure sagardogilleak jota-ke ari zaizkigu mama gozoarekin ontziak betetzen.

Garai batean etzan asko pentsatuko, sagardorik erango bagendun Galizi'tik sagarra ekarri bearke gendula. Goiarri aldean bai omen da zerbait sagar, baiña gaur Euskalerrian izan leizken sagarrakin, ez da egongo ontzi asko betetzerik. Sagardo ona er-tengo bada, emengo sagarraren kutsua bearrezko omenda; eta ori ez dedilla paltatu. Agian, biar edo etzi geiago izan leike.

Kiloko, ogeita amalau-amabost pezeta inguru omen dator Galizi'ko sagar ori. Kilo bat sagarrak ematen dun zumuarekin, iru laurdeneko botilla edo orrela betetzen omen da, eta ezin esango degu musu-trut datorrenik Galizi'ko sagar ori ere. Besteak egozio onak egiten dituztela esaten errezago da, norberak luzitzen baiño.

Garai batean, «karga», «gurdia» eta orrelako neurriak ziran sagardo-sagarrak neurtzeko; orain galdu degu ori ere, orain kiloa eta tonelada, eta aurrera. Guk ez degu inglesak antzik; aiek beren aurrerekoan izen eta neurriakin zintzo jarraitzen dute. Ingalaterra'ra ez jun kiloa, metroa eta abar artuta. Eta badakigu, munduko naziorik aurreratuenetako bat dala. Gure artean adibidez, zenbat gazte ote dauzkagu «lakaria», «gaitzerua», «anega» eta abar zer diran dakizkitenak? Kanpoko oi-turetara errez jartzen geranak gera gu askotan orrek ez badigu on aundirik egin ere.

Ain zaleak geranez, sagardo onak izatea komeni zaigu; orain-

dik badute aundirik... sagardotegiak: naiko sagardo eskura degula, edozein jatetxetan baiño merkeago apaltzen dala. Sagardotegi geiegi jartzen ari dala-eta, danerako ez dala jenderik izango? Baliteke ori ere; gerrikoa estutu bear degula esaten gogor ari zaizkigu goi-alde ortatik. Sagardotegian berriz, gerrikoa lasatu egin izan degu askotan, eta etxera ala ere naiko estu ekarri.

Gure-gurea degun zerbait degu sagardotegia; urrutiko sagarraren bidez ontziak betetzen baditugu ere, baliteke, denborarekin bertako sagarrez osatzea. Gure lur ontan zerbait izan dedilla erren-tagarri, bestela gaizki ibilli bearran izango gera.

Sanmartiñak ingururako ontzik beteko dituzte gure sagardogilleak; San Sebastián ezkerro berriz, txiriak zai izango ditugu. Jaungoikoa lagun ikusiko degu alkar.

Galizi'tik sagarra
badator gurera,
mama gozoa azkar
bear zaio atera,
bera sartuko dute
gero upelera,
gu txiritik-txirira
or asiko gera,
berriz preso sartzeko
gure sabelera.

Sagardoa izanda
euskaldun-erari,
argatikan diogu
maitsun ugari.
Zoriontsu jarriaz
eskerrak berari,
komeni zaiguna da,
neurri eder ori;
kalterik egin gabe
geure buruari.